

## **ASKATASUNAREN IBILLALDIA**

Lan Deya (1977)

Askatasunaren ibillaldiarekin gure herriak berriz ere bere demokraziatzko borondatea erakusten du, gure baitaezbadako nazio-eskubideak itzultzearen aldeko borronkan.

Amnistia orokorra, egiazko askatasunak eta antzeko eskakizunek berehalako autonomiaren baitan artzen dute beren zentzu osoa, gero eta nabarmenago. Berehalako autonomia alabarrezko oinarria bait da demokraziaren aldeko sistema bat segurtatzeko eta guztiagintekeria edo totalitarismoa benetan gainditzeko.

Baina, horra hor inperialismoaren mezulari eta morroiek ibillaldi hau ez dela egokia ez eta beharrezkoa ere aho batez diotela. Noski, dena oso ongi bait doa espainiar sistema totalitario berrian. Bitartean, euskal langilleak eta Euskalherri osoa eskuak patrikan sarturik itxoiten geldituko dira.

Benetan gertatzen ari dena bortxara eta indarrez batutako estatuaren iraupena bait da, ekonomia, soziedade eta kulturazko krisisa haundiagutzen ari den bitartean. Euzkadiko herriak, funtsean, hori du ikusten; bai eta demokraziatzko indarren eragina ahuldu eta desbideratu nahi duen sistema monopolista berri baten aziera ere.

Gaurko rejimenari demokraziatzko indarren ekintzak eragin lezaioke bakarrik aurrerabidean; edozein maillatan.

Askatasunaren ibillaldia, gure nazio-borrokaren jatorria eta herrikoitasunaren adierazpen garbia da. Oraindik ere mantentzen den borroka, bera etentzeko, desbideratzeko eta usteltzelko oldarrek bizi-bizi segitu arren. Bertan azaltzen dira: inperialismoaren uztarririk ihes egiten duen EAJ-ren herri maillako jendea, Jagi mugimenduak nazio-helburuei dioten fidelitasuna, ETA-ren jatorrizko saillak, masa-borrokaren bidelik abiatuz, karlismoaren foruzaleak, kondairan zeharreko zentzua berriz ere aurkituz, ELA-ko langilleak, langillegoaren inlernazionalismo deusezten duen sozial-inperialismoak bildu ezinezkoak.

Askatasunaren ibillaldiak baditu benetako demokraziatzko politika baten berezitasunak, oraindik zehaztu eta taxutu gabeak izan arren.

**GORA ASKATASUNAREN IBILLALDIA!**

**GORA EUZKADIKO LANGILLEOK!**

**GORA EUZKADI ASKATUTA!**